



MANIFESTUA:

EZ SAKABANATU HAUR EUSKALHIZTUNAK!

EUSKARA UME GUZTIENTZAT

Lehenik, gure esker ona eta aitortza D ereduko irakasleei, urte luzez euskararen alde egindako lan eskergarengatik. Alabaina, azken urteotan argi gorri guztiak piztu dira, haurren eta gazteen euskarazko gaitasuna eta erabilera maldan behera doazelako.

Ez da soilik eskolaren ardurak, inondik ere. Euskararen presentzia hutsaren hurrengoak da gizarte-jarduera gehienetan, era guztietako pantailatan edota hizkuntza paisaia adibidez, eta horren ondorioak agerikoak dira. Edonola ere, hezkuntza sistemak berebiziko eragina du haur eta gazteen hizkuntza ohituretan.

Arnas dezagun ekimeneko kideok udalerrri erdaldunduetan bizi garen guraso euskaldunak gara, eta gure seme-alabek euskaraz bizitzeko aukera izan dezaten nahi dugu, baina ez dago erraza. Ezta D ereduko ikasgeletan ere. Izan ere, ikastetxe askotan, euskara etxetik dakarten haurren euskalduntzea, osatu beharrean, oztopatu egiten da, erdara nagusi delako jolas eta jantoki orduetan eta, sarri, baita klase barruan ere.

Eskolan, lehenetsuna behar luke euskaraz mintzatzeko gune erosoak bermatzea, haur guztiei euskara erabiltzeko aukerak errazteko. Ikastetxe askotan, ordea, haur euskaldunak sakabanatuak izaten dira, euskara baztertu eta erdaraz jardun beste aukerarik ez dute, bestela izan ditzaketen integrazio edo onarpen arazoak beldur. Horren ondorioz, euskararekin lotutako bizipen eta uste etsigarriak garatzen dituzte maiz.

Egoera horretan, haurrok ez dute euskaraz jarduteko aukerarik irakasleekin ez bada; ez euskaldunek, ez erdaldunek, eta denak irteten dira galtzaile. Horrela zapuztu egiten da D ereduaren helburu nagusia: derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan haurrak euskal hiztun osoak izan daitezela bermatzea.

Horiek horrela, Euskal Herriko ikastetxeetako zuzendaritzari eta Hezkuntzako arduradun politikoei eskatzen diegu arnagune funtzionalak sortu eta berma ditzatela ikasleek euskaraz eroso jardun ahal izateko.

Horretarako, herri erdaldunduetan batez ere, premiazkoa da haur euskaldunak elkartzea eta euren arteko harremana erraztea, haur erdaldunak bazter utzi barik. Bestela esanda, euskaldun izateko eskubidea errespetatuko bazaie, haur euskaldunak ez dira elkarrengandik bereizi behar, bermatuta ez badago euskara dela ikasgelako eta ikastetxeko hizkuntza nagusia behintzat.

Taldeak osatzeko garaian, haur euskaldunekin batera jartzeko, ama hizkuntza gaztelania (frantsesa Iparraldean) ez duten umeak lehenets daitezke, euskara komunikazioan ardatz izatea, eta haur etorkin atzerritar horien inklusioa errazteko. Euskal Eskolan aniztasunaren eta inklusioaren ardatza euskara izatea baita logikoena, eta ez gaztelera (edo frantsesa Iparraldean) orain arte bezala.

Haur erdaldunei (erdara zein den ere) berariazko laguntza eskaini behar zaie ikastetxeotan, euren euskara maila indartu eta euskalduntze prozesua azkartzeko, beste ikasgaiei heltzeko orduan ere onuragarri.

Ikasleak ikasgelan nahitaz nahasi behar diren adinera heltzerako, funtsezkoa da haurrek euskarazko gaitasun egokia izatea, eta komunitate kontzientzia positiboa. Soilik horrela ahalbidetuko da haur eta gazte euskaldunak euskaraz askatasunez aritu ahal izatea eta etxetik erdara dakarten haurrek euskarazko gaitasun nahikoa lortzea.

Manifestu hau sinatzera animatzen ditugu Euskal Herrian gure egoera berean dauden gurasoak, bai eta eskatzen dugunarekin ados dagoen beste edonor ere. Halaber, dei egiten dizuegu manifestua zabaltzera lagunartean, familian, eskolan, guraso elkartean, sare sozialetan, auzoetan eta herrietan.